


Azken hamar urteotan jaitsi egin da EAEko gazteek erakundeetan duten konfiantza

Gobernuz Kanpoko Erakundeak, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra dira 1999tik hona jaitsiera handiena izan dutenak.

Gazteen Argazkiak seriearen azken txostenean jasotako datuen arabera —2009 urtekoak, hain zuzen ere—, Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta Eusko Jaurlaritza dira hein handienean gazteen konfiantza duten erakundeak (galdetutakoen artean), nahiz eta konfiantza hori nabarmen jaitsi den azken hamar urteotan: 1999an %77k eta %69k, hurrenez hurren, zuten konfiantza erakunde horietan, eta 2009an, aldiz, konfiantzadunak %60 eta %51 izatera pasatu dira.

Eta erdiak baino gutxiago dira orain ondoko erakundeetan konfiantza dutela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteak: enpresetan (%47), sindikatuetan (%45), justizian (%44), Eusko Legebiltzarrean (%43), Nazio Batuen Erakundeetan (%40) eta komunikabideetan (%39). Alde handia dago aurrekoen eta ejerzitoarekiko (%22), elizarekiko (%18) eta alderdi politikoekiko (%18) konfiantza-mailen artean.



EAEko 30 urte eta gehiagoko biztanleriarekin alderatuz, gazteek konfiantza-maila handiagoa erakutsi dute sindikatuekiko, justiziariekiko eta Nazio Batuen Erakundearekiko, baina nagusiek baino konfiantza txikiagoa dute Eusko Jaurlaritzan, Eusko Legebiltzarrean, elizan eta alderdi politikoetan.

Gazteen artean dauden aldeei erreparatuz, lehenik eta behin, aipa daiteke 15 eta 17 urte bitarteko gazteak direla erakundeetan, oro har, konfiantzarik handiena dutenak; alderik handienak Eusko Jaurlaritzari, Eusko Legebiltzarreari, justiziarri, komunikabideei, elizari eta alderdi politikoei dagozkie.

Neskek ere mutilek baino konfiantza handiagoa adierazi dute. Salbuespen bakarra alderdi politikoei dagokie, kasu honetan mutilek baitute konfiantza handiagoa.

Baina adinak eta sexuak baino pisu handiagoa du nortasun sentimenduak: gehienbat euskal herritarrak sentitzen direnek konfiantza txikiagoa dute erakundeetan, oro har, nortasun sentimendu hori nabarmen ez dutenek baino.

- **Iturria:** "[Gazteen Argazkiak - 13](#)" (*Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2010*).